# TURISMOARI BURUZKO EUSKAL HERRITARREN IRITZIAK

2023ko uztaila – Laburpen exekutiboa

# PERCEPCIÓN DE LA SOCIEDAD VASCA SOBRE EL TURISMO

Julio 2023 - Resumen ejecutivo

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

## BIDAIATZEKO OHITURAK

- **Oporretan kanpora joateko edo ihesaldi laburrak egiteko ohitura oso zabalduta dago Euskadin**, pandemiaren ondoren pixka bat txikitu bada ere aurreko urtetik apur bat handitu da berriz; eta, herritarren % 77k dio gutxienez urtean behin astebeteko edo gehiagoko opor-bidaiak egiteko ohitura duela; horietatik % 39k urtean behin baino gehiagotan.

- Gainera, **% 60k urtean behin gutxienez gau bateko edo biko ihesaldiak egiten ditu; horietatik ia erdiak urtean behin baino gehiagotan (% 52).** Pandemia aurretik %83 ziren urtean behin gutxienez bidaiaren bat egiten zutenak, eta %64k gau bateko edo gehiagoko ihesaldi edo bidaiak. Aldiz, duela urtebeteko portzentajeek aurtengoen antza handiagoa dute, orduan %77k egiten zuen bidaiaren bat urtean eta %58k gau bateko edo gehiagoko irteerak.

- **Egun bateko txangoak -gaua bertan pasa gabe- egiteko ohitura ere zabalduta dago (% 73k gutxienez urtean behin): % 24k hilero egiten du irteeraren bat, % 43k urtean behin baino gehiagotan, eta % 6k urtean behin.** Pandemia aurretik gehiago egiten ziren ere mota honetako ihesaldiak (%81ek gutxienez urtean behin). Aurten irteera mota hauek ere zertxobait handitu dira aurreko urtearekin alderatuta ( % 71).

- Gainera, **% 39k adierazi du bigarren etxebizitza bat duela oporretarako erabiltzen duena** (jabetzan edo familiarena).

- Gehienek **bikotekidearekin bidaiatzen dute (% 38), edo bikotekidearekin eta seme-alabekin (% 25),** gazteenek izan ezik (18-29 urte); horiek modu anitzagoetan bidaiatzen dute: lagunekin (% 31), bikotekidearekin (% 26) eta gurasoekin eta beste senide batzuekin (% 20).

- **Gehienek nahiago dute euren bidaiak pertsonalki planifikatu (% 67),** eta % 16k soilik jotzen du bidaia-agentzia batera. 65 urtetik gorakoak dira, bidaiarako informazio bila, mota horretako establezimenduetara gehien joaten direnak (% 33), bai eta pakete turistiko oso bat gehien eskuratzen dutenak ere (% 11).

- Bidaietarako eta ihesaldietarako **informazio-iturri gisa, Internet da gehien erabiltzen den bitartekoa:** hots, Interneten bidez informatzeko planteatutako 4 moduak aintzat hartuta, **helmugako edo erreserbako webguneak (% 35), sare sozialak (% 18), bidaia-blogak (% 9) eta Interneteko bilaketak oro har (% 3),** herritarren % 65ek erabiltzen ditu informazio-iturri horiek.

- **Ondoren**, informazio iturri erabiliena bidaia eta ihesaldiak planifikatzeko **lagunen, familiaren edo ezagunen aholkuak dira (% 53).**

## FORMAS DE VIAJAR

- **La costumbre de salir fuera por vacaciones o realizar escapadas cortas está muy extendida en Euskadi,** y tras descender algo tras la pandemia se ha recuperado tímidamente; así, el 77% de la población afirma que tiene por costumbre realizar viajes de una semana o más por vacaciones por lo menos una vez al año; de ellos el 39% varias veces al año.

- Además, **el 60% realizan escapadas de una noche o dos por lo menos una vez al año; de entre ellos más de la mitad varias veces al año (52%).** Antes de la pandemia eran el 83% quienes realizaban algún viaje al año y el 64% escapadas de una noche o más. En cambio, los porcentajes de hace un año se asemejaban más a los actuales, y el 77% realizaban algún viaje al año y el 58% escapadas de una noche o más.

- **También está extendida la costumbre de realizar excursiones de un día sin pernoctación (73% por lo menos una vez al año): cosa que hacen el 24% cada mes, el 43% varias veces al año y el 6% una vez al año**. Antes de la pandemia también se realizaban en mayor medida este tipo de salidas (81% por lo menos una vez al año). Y también este año ha subido ligeramente el porcentaje con respecto al año anterior (71%).

- Además, el **39% afirma tener disponibilidad para utilizar una segunda vivienda por vacaciones** (en propiedad o de la familia).

- Mayoritariamente la población viaja **con su pareja (38%) o con su pareja e hijos/as (25%),** a excepción de la población más joven (18-29 años) que viajan de formas más diversas: con amigos/as (31%), con la pareja (26%) y con los padres y otros familiares (20%).

- La **mayoría prefiere planificar sus viajes personalmente (67%)** y tan sólo el 16% recurre a una agencia de viajes. Las personas mayores de 65 años son quienes en mayor medida acuden a este tipo de establecimientos a informarse sobre el viaje que quieren realizar (33%) y también quienes en mayor medida adquieren un paquete turístico completo (11%).

- Como **medio de información** para viajes y escapadas **Internet es la fuente más utilizada**; de forma que, si sumamos las 4 formas planteadas para informarse a través de Internet, **las webs del destino o reserva (35%), las redes sociales (18%), los blogs de viajes (9%) y las búsquedas de internet en general (3%),** internet es el medio de información utilizado por el 65% de la población.

- **En segundo lugar**, la fuente de información más utilizada para planificar los viajes y escapadas son las **recomendaciones de amigos/as y familiares (53%)**.

- Gainera, **Internet are gehiago erabiltzen da gazteenen artean:** % 88k 18-29 urtekoen artean, % 91ek 30-45 urtekoen artean eta % 66k 46-64 urtekoen artean. Aldiz, **ehunekoa % 27raino jaisten da 64 urtetik gorako biztanleen artean.** Azken horiek bidaia-agentziak presentzialki erabiltzen dituzte gehienbat (% 31).

- **Euskadi barruko bidaietan**, herritarrak gehien motibatzen dituena dira **euskal kostaldea (% 71 asko edo nahikoa) eta paseatzeko edo jarduerak egiteko naturguneak (% 63);** ondoren leudeke, artea eta ondarea ezagutzea (% 60) eta gastronomia (% 54).

- **Euskadi barruko bidaietan txikiagoa da** motibazioa **kirol- eta kultura-ekitaldietara (%30) edo herrietako jaietara joateko (%28), eta erosketak egitera joateko (%23).**

- Aipatutakoez gain, **Euskadiko leku ezberdinak bisitatzeko** beste motibazioen artean aipatuena **leku horiek ezagutzeko plazerra bera izan da.**

- Además, **Internet se utiliza de forma aún más mayoritaria entre la población más joven**: 88% entre los de 18-29 años, 91% entre quienes tienen entre 30-45 años y 66% entre las y los de 46-64 años. En cambio**, el porcentaje desciende hasta el 27% entre la población mayor de 64 años.** Éstos últimos utilizan en mayor medida las agencias de viaje acudiendo presencialmente a ellas (31%).

- **En los viajes dentro de Euskadi** lo que en mayor medida motiva a la ciudadanía sigue siendo **la costa vasca (71% mucho o bastante) y los espacios naturales para pasear o realizar actividades (63%),** después estarían conocer el arte y el patrimonio (60%) y la gastronomía (54%).

- La motivación para acudir a **eventos culturales o deportivos (30%) o fiestas populares (28%) y de compras (23%) es menor en los viajes dentro de Euskadi**.

- Además de las apuntadas, **visitar diferentes lugares de Euskadi por el mero placer de conocerlos** es otra de las que señalan en mayor medida.

## 2023KO ASTE SANTUKO OPORRAK

- **Aste Santuan oporretan mugitzeko joera iazko maila bertsuetan mantendu da, eta biztanleen %44k egin du bidaia edo ihesaldiren bat** egun horietan gaua etxetik kanpo pasata.

- Gainera, **biztanleriaren %29k egin du Euskadin bertan txangoren bat gaua etxetik kanpo** pasa gabe.

- Aste Santuan oporretan atera diren **hamar pertsonetatik zortzi Estatuan zehar ibili dira. Gaztela-Leon izan da gehiengoak aukeratutako helmuga (%16), eta bigarren lekuan Kantabria (%10). Biztanleen %8k Euskadin barruan bidaiatu du,** %4a Iparralderа joan da eta %3 Nafarroara.

- **Europa, berriz, bidaiatu dutenen %11k aukeratu du,** eta %2k munduko beste leku bat. Aurreko urtearekin alderatuta **handitu egin da zertxobait atzerrira bidaiatu dutenen pertsonen kopurua.**

- **Aste Santuan ez bidaiatzeko** arrazoien artean daude **arrazoi pertsonalak (gaixotasuna, zaintza lanak, etb.) (%27), denbora librerik ez izatea (%25)** eta arrazoi ekonomikoak (%14).

- **Euskadi barruan bidaiatu dutenak** gainerakoak baino gusturago agertu dira **ostatuaren kalitatearekin, jasotako tratuarekin eta zonaldeko eskaintza gastronomikoarekin.** Baina apur bat gutxiago zonaldeko zerbitzuen prezio mailarekin.

## VACACIONES DE SEMANA SANTA 2023

- La tendencia a **moverse por vacaciones de Semana Santa se ha mantenido en los niveles del año anterior** y el **44% ha realizado algún viaje o escapada** pasando la noche fuera durante esas fechas.

- Además, el **29% de la población ha salido a visitar lugares de Euskadi en excursiones de un día** sin pernoctar fuera.

- **Ocho de cada diez personas** que han salido de vacaciones esta Semana Santa **se han decantado por viajar dentro del Estado**. **Castilla y León ha sido el destino elegido por la mayoría (16%), seguida por Cantabria (10%).** El **8% de la población ha viajado dentro de Euskadi,** el 4% a Iparralde y el 3% a Navarra.

- **Europa ha sido el destino elegido por el 11%** de las personas entrevistadas, mientras que el 2% han viajado a otros destinos alrededor del mundo. **Ha aumentado algo el porcentaje de personas que han viajado al extranjero** con respecto al año anterior.

- Entre los motivos para **no viajar esta Semana Santa** los principales son las **razones personales (de salud, labores de cuidado, etc.) (27%), la falta de tiempo libre (25%)** y los motivos económicos (14%).

- Quienes han **viajado a Euskadi** se muestran **más satisfechas que el resto con la calidad del alojamiento, el trato recibido y la oferta gastronómica**

- **Egin diren jarduerak, batez ere, aire zabalekoak izan dira:** paseatu eta paisaiaz gozatu (% 55) eta naturan jarduerak egin (% 32). Ondoren datoz, gertutik, gastronomiaz gozatzea (31%) eta lagunak eta senitartekoak bisitatzea (%22). Bidaiarien %13k museoak eta erakusketak bisitatu edo kultuk ekintzetan parte hartu du**.**

.

## 2023KO UDAKO OPORRAK

- **% 66k uste du ziurrenik bidaiaren bat egingo dutela uda honetan aisialdiaz gozatzeko;** gehiago, gazteenen artean (%78 18 eta 29 urte bitartekoen artean eta %76 30 eta 45 urte bitartekoen artean).

- **Bidaiatuko ez dutenen artean, arrazoi nagusia pertsonala da (%30), eta bigarrena arrazoi ekonomikoak (%20) edo denbora (%18)** edo gogo falta (%9 gogo falta edo ez zaiolako gustatzen).

- Bidaia gehienak **astebetekoak (% 46) edo bikoak (% 33)** izango dira.

- **Espainia izango da gehiengoak aukeratuko duen lekua** (% 10ek Asturias, Kantabria edo Galizia, eta % 49k Espainiako beste leku bat). %18k Europako beste herrialde batera bidaiatuko du eta %7k Europatik kanpo. Euskadin barna bidaiatuko du %2k, eta beste %2k Nafarroara eta %1ek Iparraldera.

- **Bidai luzeena egiteko Euskadi ez aukeratzeko arrazoien artean gehien aipatzen direnak dira, oporretan leku, ohitura eta jende ezberdinak ezagutu nahi izatea (%42), Euskaditik kanpoko leku zehatz bat ezagutu nahi izatea (%16), Euskaditik urrunduta gehiago deskonektatzen dela (%15), eguraldia (%15).** Euskadi bidaia motzagoak egiteko uztea (%12) edo senitarteko edo lagunen bat bisitatzeko asmoa (%9), besteak beste.

- Dena den, **ia erdiek esan dute (%43) asmoa dutela urtea amaitzerako Euskadi barruan irteeraren edo ihesaldiren bat egiteko.**

- **Hamarretik sei hasi dira bidaia prestatzen jada (% 60). Eta bidaiaz informatzeko eta erreserbak egiteko Internet erabiliko dute batez ere**: bai bidaiatzeko lekuari buruz (%69) zein ostatuari buruz (% 70), garraiobiderik egokiena aukeratzeko orduan (%71), lekuan bertan egin ditzaketen jarduerei buruz (% 63) eta gastronomiari buruz ere (% 53).

- **Erreserbak** ere, batez ere, **Interneteko webgune ezberdinak edo bidaia agentziak online erabili dira (hamarretik 7k baino gehiagok).** Gainerakoek erreserba ostatuan bertan edo garraio konpainian bertan

**de la zona,** pero algo menos con respecto a la relación calidad precio de los servicios.

- Las **actividades realizadas han sido sobre todo al aire libre**: pasear y disfrutar del paisaje (55%) y realizar actividades en la naturaleza (32%). Seguidos de cerca por el porcentaje de personas que han gozado de la gastronomía (31%) y han visitado a amigos y familiares (22%). El 13% han visitado museos, exposiciones o acudido a eventos culturales.

## VACACIONES DE VERANO 2023

- El **66% cree que muy o bastante probablemente realizarán algún viaje por ocio este verano**, sobre todo entre las y los más jóvenes (78% entre los de 18 a 29 años y 76% entre los de 30 a 45).

- Entre quienes **no van a viajar**, la razón principal son los **motivos personales (30%), y después por razones económicas (20%) o falta de tiempo (18%)** o ganas (9% porque no le gusta o no le apetece).

- La mayoría de los viajes que se van a realizar son de **una semana (46%) o dos (33%).**

- **España va a ser el lugar de destino elegido por la mayoría** (10% Asturias, Cantabria o Galicia y 49% el resto de España). El 18% viajaran a otro país europeo y el 7% tiene pensado realizar un viaje fuera de Europa. El 2% viajaran dentro de Euskadi, otro 2% a Navarra y el 1% a Iparralde.

- El **motivo principal por el que no eligen Euskadi** como lugar de vacaciones es porque **por vacaciones les gusta conocer lugares, costumbres y gentes diferentes (42%), porque quieren conocer un lugar específico fuera de Euskadi (16%), porque desconectan más saliendo de Euskadi (15%), por la meteorología (15%),** porque para viajes más largos eligen destinos más lejanos y dejan Euskadi para los cortos (12%) o porque tienen pensado visitar a un/a amigo o familiar (9%), entre otras.

- De todas formas, **casi la mitad (43%) están pensando en realizar alguna salida o escapada dentro de Euskadi en lo que queda de año.**

- **Seis de cada diez ya han comenzado a preparar el viaje (60%). Y para informase sobre el viaje y para realizar las reservas utilizarán sobre todo Internet:** tanto para informase por el sitio al que viajar (69%), el alojamiento (70%), para elegir el medio de transporte más adecuado (71%), las actividades a realizar en el lugar (63%) y la gastronomía (53%).

- También **las reservas se están realizando sobre todo por internet en diferentes plataformas o en una agencia de viajes online (casi 7 de cada diez).** El resto

egingo dute, batez ere. %10ak baino gutxiagok erabiliko du bidaia agentzia baten bulegoa fisikoki.

- **Bertan egiteko jarduerei dagokionez**, **enpresa edo erakundearen web orria da gehien erabiltzen** dena erreserbak egiteko (%58).

- **Informazioa jasotzeko eta bidaiaren erreserbak** egiteko **gehien erabiltzen diren webguneen artean Booking da** oraindik ere aipatuena, modu nabarmenean gainera **( % 44).**

la mayoría optarán por realizar la reserva directamente en el alojamiento o en la compañía de transporte. Menos del 10% optan por una agencia de viajes física.

- En el caso de las **actividades a realizar en el lugar, la página web de la propia empresa o actividad es la más utilizada** para realizar las reservas de antemano (58%).

- Entre las páginas web **más utilizadas** para **informarse y realizar las reservas** del viaje **Booking (44%)** sigue destacando sobre todas las demás

## TURISMOA EUSKADIN

- **Euskadiko garapen ekonomikorako turismoa elementu garrantzitsua da herritar gehienentzat** (% 66entzat oso garrantzitsua eta %31rentzat nahiko garrantzitsua), eta gainera **positiboa da euskal herritarren eguneroko bizitzarako (% 75).**

- **Hamarretik zortzik uste dute gainera Euskadiko turismoa arduratsua eta jasangarria dela**: %55k neurri batean eta %26k guztiz. **Soilik %9k uste du ez dela.**

- **Turistak pilatzen diren leku horietan herritarrak ez dira kexu eta %48a hori gertatzearekin gustura agertu da**; %31ri berdin zaio eta **soilik %15ek adierazi du ez duela gustuko hori gertatzea.**

- **% 37k ezagutzen du Euskadin egin daitezkeen planei eta jarduerei buruzko Eusko Jaurlaritzaren webgunea,** baina % 9k baino ez du erabili**.**

## EL TURISMO EN EUSKADI

- **En Euskadi el turismo es un elemento de desarrollo económico importante para la mayoría de la ciudadanía** (66% muy importante y el 31% algo importante), además de ser **positivo para la vida cotidiana de los vascos y vascas (75%).**

- **Ocho de cada diez consideran que el turismo en Euskadi es responsable y sostenible:** el 55% cree que es sostenible y responsable en parte y el 26% totalmente. **Tan sólo el 9% opinan que no lo es.**

- En aquellos lugares **donde abundan los y las turistas la ciudadanía no se muestra muy molesta e incluso el 48% se muestra a gusto**; al 31% le da igual **y tan sólo el 15% afirma que no le gusta que suceda.**

- El **37% conoce la página web del Gobierno Vasco sobre planes y actividades a realizar** en Euskadi, aunque tan solo el 9% la han utilizado.

## ZEHAZTASUN TEKNIKOAK

**Unibertsoa**

**EAEn bizi diren** 18 urte edo gehiagoko biztanleak.

**Lagin-disenua**

- Lagin-tamaina**: 1.445 elkarrizketa EAEn.** 400 Araban, 600 Bizkaian eta 445 Gipuzkoan.

- **Gizabanakoen hautaketa prozedura** polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, udalerriaren tamainaren araberako estratu proportzionalak erabiliz. Ondoren **pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren araberako** kuoten bidez aukeratu ziren.

## FICHA TÉCNICA

**Universo**

Población de 18 o más años **residente en la CAPV**.

**Diseño muestral**

- Un tamaño muestral de **1.445 entrevistas para el total de la CAPV:** 400 en Araba, 600 en Bizkaia y 445 en Gipuzkoa.

- La **selección de las personas a entrevistar** se realizó por procedimiento polietápico y estratificado proporcionalmente por **tamaño de municipio, con selección posterior de las personas según cuotas de sexo, edad y situación laboral**.

- Lagina diseinatu da inkesten **%40 telefono finkoaren bidez egiteko eta beste %60 telefono mugikorraren bidez.**

- Emaitzak hiru lurraldeetako **biztanleria zentsuaren arabera haztatu dira.**

**Lagin-errorea**

- Lagin errorearen estimazioa, erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria, **± % 2,6 da EAE osorako**, % 95,5eko konfiantza mailarako, p=q=0,5 izanik.

**Informazio bilketa**

- **2023ko ekainaren 5etik ekainaren 14ra** bitartean egin zen -biak barne-.

- **Banakako telefono bidezko elkarrizketa,** ordenagailuz lagundua (CATI), **galdetegi egituratu eta itxiaren bidez.**

Ikerketaren diseinua, emaitzen azterketa eta txostena burutzearen ardura Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio soilik. Informazio bilketa Campo Volantín kalea, 48007, Bilbo helbidean dagoen Ikerfel enpresak egin zuen.

- La muestra se ha diseñado de manera que el **40% de las encuestas se realicen a través de un teléfono fijo y el otro 60% a través de un teléfono móvil.**

- Los datos han sido **ponderados a posteriori en base a la población** de cada uno de los territorios**.**

**Error muestral**

- El error muestral, atribuible en el caso teórico de que la muestra hubiera sido estrictamente aleatoria, se estima en un **± 2,6 % para el conjunto de la CAPV**, con un nivel de confianza del 95,5 %, siendo p=q=0,5.

**Recogida de información**

- Se realizó entre el **5 y el 14 de junio de 2023** -ambos inclusive-.

- **Entrevista telefónica individual** asistida por ordenador (CATI), mediante **cuestionario estructurado y cerrado**.

El diseño de la investigación, el análisis de los resultados y la elaboración del informe es responsabilidad exclusiva del Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco. La recogida de información fue realizada por la empresa Ikerfel, sita en la calle Campo Volantín 21, 48007, Bilbao.